

قافلة بين
سينمائيات

EMAKUMEEK EGINDAKO ZINEMA 15. KARABANA

Maiatzaren 25etik 29ra

2026

Golem Zinemak

Azkuna Zentroa. Alhondiga Bilbao

Saioak 16:45 / 19:00

Sarrerak 3€



www.kcd-ongd.org

KCD
Kultura Komunikazioa Dinekin
www.kcd-ongd.org

CINE INVISIBLE
FESTIVAL INTERNACIONAL
FILM SOZIALAK 2026 BILBAO



E
LARKIDETZARIKO ETA
GUZTATZARERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA BASCA DE
COORDINACIÓN Y
SERVICIOS

**EUSKO JAURLARITZA
GOBERNO VASCO**
DEPARTAMENTU KULTURAREN
BILKETA ETXEA

Bizkaia
Foru aldundia
diputación foral

klaketa
arabek
مهرجان

golem alhondiga

ALHONDA
ZENTROA
ALHONDIGA
BILBAO



(H)ABIAN

Ap
Asociación de
Profesionales de
la Publicidad



EHU
Euskal Herriko
Unibertsitatea



"ZINEMAGILEEN ARTEAN"

15. KARABANA

Zinemak gure begiradak aldatzeko ahalmena du

Zinema entretenimendu gisa ulertu ohi da, baina gizartea eraldatzeko tresna ere izan daiteke. Are gehiago, egungoa bezalako une erabakigarrian, diskurtso negazionistek berdintasuna eta feminismoa zalantzan jartzen baitituzte. Gaur egun, inoiz baino beharrezkoagoa da gizon-emakumeok irmo egitea joera horien aurka.

Matxismoa ez da hutsetik sortzen. Sakon errotutako fenomeno da, eraiki, ikasi eta normalizatu egiten dena, askotan zinemaren eta publizitatearen bidez, baina baita historia- eta testu-liburuen bidez ere.

Horregatik, kultura eta komunikazioa funtsezkoak dira. Errealitatea islatzeaz gain, eraiki ere egiten dute. Beharrezkoa da matxismoa gure imajinario kolektibotik kentzea, estereotipo eta klixek haustea. Eta, aldi berean, imajinario berriak eraikitzea, emakumeen begirada bistaratzea eta gizon-emakumeei emantzipatzeko aukera emango dieten kontakizunak sortzea, pertsona guztien ongizateari laguntzeko, generoa gorabehera. Hain zuzen ere, Emakumeek egindako Zinemaren Karabanak 15 urte daramatza horixe egiten.

Emakumeak zineman ageriko egitea ez da soilik justizia edo aukera-berdintasuna txertatzea ikus-entzunezkoen sektorean. Munduari begiratzeko modua aldatzeko funtsezko tresna ere bada.

Edizio honetako filmek, historiak kontatzeaz gain, errealitate deserosoetarako leihoak irekitzen dizkigute, gogoe-ta egiten eta, batez ere, jarrera bat hartzen laguntzeko. Gatazkei, nortasunari, desparekotasunari eta erresistentziari buruz hitz egiten dute.

Baliatu dezagun karabanak eskaintzen diguna, beste pauso bat emateko: genero-desparekotasunaren eta indarkeria matxista guztien aurka egiteko. Gaur egun, denok ditugu komunikabideak eskura. Ekintzari ekiteko unea da, isiltasun konplizea hausteko unea, eta gizartea eraldatzen laguntzekoa.

Beste behin, Emakumeek egindako Zinemaren Karabanak ez zaitu epel utziko!

J. Carlos Vázquez Velasco

Zuzendaria

Kultura Communication Desarrollo "KCD" GGKE

Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia

"ZINEMAGILEEN ARTEAN"

15. KARABANA

Egunak: maiatzaren 25etik 29ra

Lekua: Golem zinemak - Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao

Saioak: 16:45 / 19:00

Prezioa: 3,00€ saiko

EGITARAUA

25 ASTELEHENA

16:45, 19:00

• **PALESTINA 36. Annemarie Jacir**

Fikzioa. Palestina, Erresuma Batua, Frantzia, Danimarka, Norvegia, Qatar, Saudi Arabia, Jordania, 2025, 120 min. JB ingelesez eta arabieraz; azpтитuluak gaztelaniaz.

Valladolideko Zinema Jaialdiaren (SEMINCIren) irabazlea – Punto de Encuentro sarirako izendatua

Palestinarrak, nekazariak buru zituztela, kolonialismo britainiarraren aurkako matxinada hasi zuten, eta britainiarren 30 urteko nagusitasunaren aurkako altxamendurik handiena eta luzeena izan zen.



19:00etan. Gonbidapena dutenentzako saioa (eskatu hemen: www.kcd-ongd.org / info@kcd-ongd.org)

Saioak eztabaida-leku bat izango du, eta, bertan, hauek hartuko dute parte: **Nur Haddadek**, Palestinako giza eskubideen aldeko ekintzaile, bereziki emakumeena, artista eta ingeniaria. Foroa **Teresa Aranguren**ek dinamizatuko du, mundu arabiarrean eta gatazka-guneetan espezializatutako kazetari eta idazleak.



*Zeinu-hizkuntzaren interprete-zerbitzuarekin.

- **THE TRY. Manar Imam**

Emakumeek egindako sormenezko dokumentalen tailerra, Kairo, Egipto, 2023, 6 mins. JB persieraz eta arabieraz; azpтитuluak gaztelaniaz eta ingelesez.

- **GHALIA. Amira Sayed**


Emakumeek egindako sormenezko dokumentalen tailerra, Kairo, Egipto, 2023, 10 mins. JB persieraz eta arabieraz; azpтитuluak gaztelaniaz eta ingelesez.

- **CUTTING TROUGH ROCKS. Sara Khaki, Mohammadreza Eyni**

Dokumentala. Iran, Herbehereak, Txile, Kanada, 2025, 94 min. JB persieraz eta arabieraz; azpтитuluak gaztelaniaz eta euskaraz.

Film luze dokumentalik onenaren sarirako izendatua, Oscar sariak – Epaimahaiaren sariaren irabazlea, Sundance Zinema Jaialdiko World Cinema saila

Sara Shahverdi Irango herri bateko lehen emakumezko zinegotzi hautetsia denez, herrian oso errotuak dauden tradizio patriarkalak hautsi nahi ditu, emakumezko nerabeei motorrean ibiltzen erakutsiz eta haurren ezkontzak amaituz. Neskak ahalduentzeko Sararen asmoak zalantzan jartzen dituzten akusazioak azaleratzen direnean, bere nortasuna kolokan jarriko da.



19:00etan. Saioan **Anahita Nassir** izango da, politologo eta aktibista hispano-irandarra. Foroa **Leyre Otaegi** nazioarteko kazetariak eta *LolaMora Producciones*en sortzailekideak dinamizatuko du.



*Zeinu-hizkuntzaren interprete-zerbitzuarekin.

• **CALLE MÁLAGA. Maryam Touzani**


Fikzioa. Maroko, Frantzia, Espainia, Alemania, Belgika, 2025, 116 min. JB gaztelaniaz; azpigitulu partzialak gaztelaniaz.

Ikusleen sariaren irabazlea, Veneziako Zinema Jaialdia - Mar del Platako Nazioarteko Zinema Jaialdiaren irabazlea - Urrezko Biznagarako izendatua, Malagako Zinema Jaialdia - Nazioarteko filmik onenaren irabazlea, Göteborgeko Zinema Jaialdia

María Ángeles (Carmen Maura) Tangerren, Maroko iparraldean, bere hiriaz eta eguneroko bizitzaz gozatzuz bakarrik bizi den 79 urteko espainiarra da. Bizitza goitik behera aldatuko zaio, Clara alaba (Marta Etura) Madriletik etortzen denean, betiko bizileku izan duen apartamentua saltzeko asmoz. Hazten ikusi zuen hirian geratzeko asmoz, ahal duen guztia egingo du etxea ez galtzeko eta bizitza osoko objektuak berreskuratzen. Bidean, pronostiko ororen kontra, maitasuna eta desioa aurkituko ditu berriro.



19:00etan. Saioak eztabaida-leku bat izango du, eta, bertan, **Marije Goikoe-txeak** hartuko du parte, Giza Eskubideetan doktorea eta Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikertzailea denak.



Foroa **Lorena Zabala** kazetari eta Gizarte Komunikazioko doktoreak dinamizatuko du.

- **MY GRANDMOTHER'S SECRET.** Nourhan Abdelsalam
Emakumeek egindako sormenezko dokumentalen taillera, Kairo, Egipto, 2024, 12 mins. Jatorrizko bertsioa persieraz eta arabieraz; azpigituluak gaztelaniaz eta ingelezaz.
- **MANAS.** Marianna Brennand Fortes
Fikzioa. Brasil, 2024, 101 min. JB portugesez; azpigituluak gaztelaniaz eta euskaraz.

Iberoamerikako filmik onenaren kategoriarako izendatua, 2026ko Goya sariak

Amazoniako oihaneko Marajó uhartea. Marcielle (Tielle) ibai-ertzean bizi da aitarekin, amarekin eta bere hiru neba-arrebekin. Amaren hitzek bultzatuta, ahizpa zaharrena miresten du; dirudienez, bizi duten errealitatetik ihes egin zuen ahizpak, gizon on bat aurkituz eskualdea zeharkatzen duten gabarretako batean. Heldu ahala, Tielleren ikuspegi idealizatuak suntsitu egingo dira, eta abusuzko bi inguruneren artean harrapatuta geratuko da. Ahizpa txikiaz eta etorkizun ilunaz gero eta kezkatuago, familia eta komunitateko emakumeak kontrolatzen dituen sistema zapaltzaileari aurre egitea erabakiko du.



19:00etan. Saioan **Flora Pozzobonek** hartuko du parte. Mugarik Gabe erakundeko ikertzaile feminista eta antiarrazista da, eta Bizitza Jasangarrien eta Herri Indigenen arloko hezkuntza-proiektuen arduraduna. Foroa **M.^a Ángeles Fernándezek** dinamizatuko du, Pikara Magazine aldizkari feministako kazetari eta koordinazio-taldeko kideak.




*Zeinu-hizkuntzaren interprete-zerbitzuarekin.

• **ROMERÍA. Carla Simón**

Fikzioa. Espainia, Alemania, 2025, 115 min. JB gaztelaniaz; azpigituluak gaztelaniaz.

Zuzendari onenaren, bigarren mailako emakumezko aktore onenaren, emakumezko aktore berri onenaren, gizonzko aktore berri onenaren, gidoi egokitu onenaren (Carla Simón) eta jantzi-diseinu onenaren sarietarako izendatua, 40. Goya sariak (2026) - Filmik onenaren sarietarako izendatua, 78. Canneseko Zinema Jaialdia (2025) - Interpretazio berri onenaren irabazlea, XVIII. Gaudi sariak (2026) - Film dramatiko onenaren, zuzendari onenaren eta gidoi onenaren sarietarako izendatua, Feroz sariak (2026).

Carla Simonen hirugarren filma da, eta Marina 18 urteko neskato adoptatu baten jarraipena da. 2004an Vigora joan zen, hiesak jota hildako guraso biologikoen familia ezagutzera. Bere sustraiak bilatu eta iragana berreraiki nahi du, aitaren aldeko familiak adikzioari buruz duen isiltasunari eta lotsari aurre eginez.



19:00etan. Saioak eztabaida-leku bat izango du eta, bertan, **Asier Orcajok** parte hartuko du, **Bizkaiko Hiesaren Aurkako Herritarren Batzordean** (Bizkaisida), Familia Medikua eta Dibertsitate eta Osasun Komunitarioko Koordinatzailea. **Anne Garea**, Euskal Herriko Unibertsitateko kazetaritzako lizentziaduna eta Radio Bilbao eta Cadena SER irratietako albistegietako erredaktorea, arduratuko da foroa dinamizatzeaz.